

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

MUGIKORTASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA

Administrazio Zerbitzua

2020an Vitoria-Gasteizko taxi zerbitzuan errekuntza motorra duten ibilgailuen ordez ibilgailu elektriko matrikulatu berriak erosteko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautuko duten berriazko oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen 2020an Vitoria-Gasteizko taxi zerbitzuan errekuntza motorra duten ibilgailuen ordez ibilgailu elektriko matrikulatu berriak erosteko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautuko duten berriazko oinarriak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 5ean

Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren administrazio-burua
JAVIER LARRIETA CENDEGUI

Berriazko oinarriak

1. Deialdiaren xedea

2020an Vitoria-Gasteizko taxi zerbitzuan errekuntza motorra duten ibilgailuen ordez ibilgailu elektriko matrikulatu berriak erosteko dirulaguntzak ematea da deialdiaren xedea. Honen bitartez, airearen kalitatea hobetzen lagunduko da, baita kutsadura akustikoa, berotegi-efektuko gasen emisioak eta energia-kontsumoa murrizten ere.

2. Hartzaileak

Honakoak izan daitezke dirulaguntzen hartzaileak:

– Vitoria-Gasteizko udalaren taxi-lizentzia baten jabe diren pertsona fisikoak, ibilgailu berriak lehendik lizentzia horri atxikitako ibilgailua ordeztzen bada.

– Vitoria-Gasteizko taxi-elkarteak, ibilgailua Vitoria-Gasteizko taxi-lizentziek eta ez bestek ibilgailu bat ordezteko erabiltzen bada.

Ibilgailu bakarra lagunduko da diruz pertsona fisiko eta elkarte bakoitzeko.

Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen Lege Orokorraren (DLO) 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritako debeku-egoeratan dauden eskatzaile fisiko edo juridikoak.

2020ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako erosketa-faktura duten eskabideek ezingo dituzte laguntzak eskuratu.

3. Ibilgailuen baldintzak eta betekizunak

Taxi-lizentzien titularrek 2020an erosi dituzten ibilgailu elektriko huts berriengatik bakarrik jaso ahalko da dirulaguntza.

4. Aurrekontu zuzkidura eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Oinarri hauetan zehaztutako ekintzetarako aurrekontua 30.000,00 eurokoa izango da, guztira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa hamar mila eurokoa (10.000,00 euro) izango da eskabide bakoitzeko.

Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailaren aurrekontuko 2020/152002.4412.77000 partidako zuzkidura da; hala ere, 2020ko aurrekontuan zuzkidura egoki eta nahikorik egon behar du, orduan ebartziko baita deialdia.

5. Dirulaguntza emateko prozedura

Dokumentazioa sarrera-erregistroan sartu den hurrenkerari jarraituko zaio dirulaguntzak emateko (eguna, hilabetea, ordua eta minutuak) , 4. atalean adierazitako aurrekontu-mugara iritsi arte.

6. Eskabideak aurkezteko epea eta modua

1. Deialdi honen laburpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta gorabehera hauetakoren bat gertatzen denean amaituko:

a) Behar bezala beteta jasotako eskabideek aurrekontua agortzea.

b) 2020ko irailaren 30a iristea; Dena dela, jasotako eskabideen eta horien tramitazio-egoeraren arabera, epea 2020ko abenduaren 31ra luzatzerik izango da, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena tarteko.

2. Aurrekontua 2020ko irailaren 30a baino lehen agortzen bada, eskabideak behin-behineko zerrendan erregistratu ahalko dira, eta sarrera-erregistroaren hurrenkerari jarraituta erantzungo zaie, baldin eta aurrekontua geratzen bada aldez aurretik esleitutako dirulaguntzak bertan behera utzi direlako, onartu ez direlako edo uko egin zaielako.

3. Interesaturik daudenek II. eranskineko eskabide-eredua baliatuta aurkeztu beharko dute eskabidea, aurrez aurre herritarrei laguntzeko bulegoetan edo Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoko helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

4. Eskabidean eskatzailearen NANA –edo IFK elkarte bada– agertu behar dira, ezinbestean, eta honako agiriak erantsi behar zaizkio:

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretako batean ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena. (I. eranskina).

– Ibilgailua gutxienez lau (4) urtez Gasteizko taxi-zerbitzura atxikita egongo dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena. (I. eranskina).

– Ibilgailu elektriko huts berriaren jatorrizko faktura, saltokiak zigilatuta (II. eranskinean jasotako eredu).

– Gizarte Segurantzaren Diruzaintzarekiko betebeharrak ordainduak direla egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskabidearekin batera ez dira oinarrien 9. atalean adierazi diren egiaztagiria aurkeztu behar.

7. Instrukzioa eta ebazpena

Vitoria-Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorren 8. puntuan ezarritakoa aplikatuko da deialdia bideratu eta ebazteko (Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 9an onetsitako deialdia, 2020ko abenduaren 23ko ALHAO, 174. zk).

8. Dirulaguntza ordaintzea

Laguntza justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntzaren ehuneko 100a.

9. Dirulaguntzak justifikatzea

Emandako laguntzak bi (2) hilabeteko epean justifikatu beharko dira, ebazpenaren jakinarazpenetik kontatuta.

Honako lege eta ordenantzei jarraitu behar zaie dirulaguntzak justifikatzeko: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikulua, eta hurrengoak, lege horren araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 69. artikulua eta hurrengoak, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantzaren 19.artikulua.

Aipatutako artikulua horren ildotik, honako agiriak aurkeztu beharko dira dirulaguntzak justifikatzeko:

- Ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren fitxa teknikoaren fotokopia.
- Zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Ibilgailu elektriko hutsa ordaindu izanaren egiaztatzea. Hauek dira, besteak beste, ordainketa justifikatzeko agiriak:

1) Transferentzia.

a) Egindako transferentzia-aginduaren frogagiria, finantza-erakundeak emana.

b) Egindako transferentziaren kargua ageri den kontu korrontearen laburpena (banketxeak zigilatua).

Bi kasuetan berariaz jasota agertu behar dira kontzeptua, transferentziaren onuraduna eta kontuaren titularra dela dirulaguntzaren onuraduna.

2) Txartela:

a) Txartelaz ordaindu izanaren frogagiria.

b) Txartelaz ordaindu izanaren kargua ageri den kontuaren laburpena.

Kasu guztietan berariaz jasota agertu behar dira kontzeptua, eragiketaren onuraduna, eta txartelaren titularra dela dirulaguntzaren onuraduna.

3) Banku-entitatearen bidezko finantziazioa:

Finantzaketa-kontratuaren kopia.

Vitoria-Gasteizko udalak ofizios konprobatuko du ibilgailua taxi zerbitzuan erabiltzeko gaitzat jo dela.

10. Diruz lagun daitezkeen gastuak

Ibilgailua erosteko gastuak – BEZik gabe– joko dira diruz lagun daitezkeen gastutzat, Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.8 artikulua ezarritako ondorioetarako.

11. Lehiatzeko aukera

Emandako laguntza bateragarria izango da helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela estatuko, dela Europar Batasuneko dela nazioarteko –emandako bestelako dirulaguntzekin.

Hala ere, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gaintitu, inolaz ere, dirulaguntzaren xedearen kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina batera.

Onuradunek jakinarazi egin behar diote Vitoria-Gasteizko udalari udalaren ebazpenaren ondoren beste administrazio publiko batzuegandik helburu berarako laguntzak jasotzen badituzte, horien jakinarazpena jasotzen denetik hilabete pasa aurretik (III. eranskina).

12. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek DLOren 14. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzaren 6. artikuluan xedatutako betebeharrak bete beharko dituzte.

Bereziki, honako hauek:

– Dirulaguntzaren xede den ibilgailua dirulaguntzan adierazi den lizentziari atxikitzea, 2020an.

– Ibilgailu elektrikoa gutxienez lau urtez (4) erabiltzea taxi-zerbitzuan, atxikitzen denetik kontatuta. Gutxieneko denbora igaro aurretik ibilgailua zerbitzutik kentzen bada, itzuli egin beharko zaio udalari jasotako dirulaguntzaren zati proportzionala, aurreko paragrafoan adierazitako gutxieneko denbora bete arte, salbu eta ibilgailua Vitoria-Gasteizko beste taxi-lizentzia baten titularrari eskualdatu eta epe hori bete arte zerbitzua eskaintzen jarraitzen badu. Edonola ere, gutxieneko epearen baldintza betetzen ez bada, dirulaguntzaren onuradunaren erantzukizuna izango da proportzionala itzultzea.

– Vitoria-Gasteizko udalari laguntzea elektromugikortasuna sustatzeko antolatzen dituen jardueretan.

– Vitoria-Gasteizko udalak emandako itsasgarria jartzea ibilgailuaren kanpoko aldetik ikus-teko moduko lekuren batean. Itsasgarriak ibilgailuak taxi-zerbitzurako ibilgailu berri elektrikoak erosteko dirulaguntza deialdi honetan laguntza jaso duela adieraziko du.

13. Dirua itzultzea

Egoera hauetakoren bat gertatuz gero– dirulaguntza eskatu eta eman zen xederako ez erabiltzea, dirulaguntza ekarri duen ekintza ez burutzea, dirulaguntza ezarri zen xederako aplikatu zela ez justifikatzea edo nahikoa ez justifikatzea, eta, oro har, ezarritako betebeharrak ez betetzea–, onuradunek itzuli egin beharko dute emandako eta jasotako zenbatekoa, aplikagarri zaizkion berandutze interesak gehituta, DLOren 37. artikuluan eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera (2005eko ekainaren 17a onetsitako ordenantza; 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zk.).

14. Arau-hausteak eta zigorrak

DLOren 59. artikulutik 69.era bitartekoetan eta Vitoria-Gasteizko dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 28. artikulutik 41.era bitartekoetan ezarritakora egokituko da arau-hauste eta zigoren erregimena (udal ordenantza 2005eko ekainaren 17an onetsi eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn, 5. zk, argitaratu da).

15. Araudia

Deialdi honetan ezarritako prozedura Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 9an (2019ko abenduraren 23ko ALHAO, 174.zk) onetsitako oinarri orokorretan ezarritakoaren mende dago, beti ere DLOn, diru-laguntzen udal ordenantzaren (2015eko ekainaren 17an onetsi eta 2006ko urtarrilaren 13an argitaratua) eta deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoaren kontrakoak ez badira.

Udalaren www.vitoria-gasteiz.org webgunean kontsulta daitezke deialdi honi buruzko agiri guztiak.